

## **AURKEZPENAK / PRESENTACIONES**



## DEITURA IZENDEGIAZ

Bilbo, 1998-VII-13

Mikel Gorrotxategi Nieto,  
Onomastika batzordeko idazkaria

Gaur hemen aurkezten dugun liburu hau Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen urteetako lana da, baina inondik inora amaitutzat eman daitekeena lehenengo aurrera pausoa, handia, baina lehengoa baino ez. Argi utzi behar dugu puntu hau liburuan agertzen diren deitura guztiak euskal deiturak izan arren ez baitira dauden guztiak.

Lege aldaketak deiturak euskaraz jartzeko bidea zabaldu zuenean hasi ziren banakako eskaerak etortzen eta batzordeak ikertu behar izaten zuen banan-banan zein zen idazkera egokia jakiteko, baina eskaeren kopurua etengabe handitu eta ondorioz banakako lana ezinezkoa izan zenez bi lagun lan horretan aritzea erabaki zen, eraz eta egoki erantzuteko.

Ikerketa lan horrek lau alderditan banatu behar izan zen, deituren *corpus* zabaldua lortzea, deitura horien jatorria zehaztea, bertako ahoskera ezagutzeta, eta normalizazio proposamena egitea, Batzordeak hala bazeritzon bere onikusia emateko. Lan hori gauzatzeko bi alde jorratu behar zirela ikusi zen, batetik, historikoa, erroldak eta sutegiak ikertzeko, horiek ematen baitigute jatorria ezagutzeko bidea. Lan hori Txema Fernandez Anakabe historialariari egoki zitzaien. Bestetik, filologikoa, idazkera proposamena gauzatzeko, neuk burutu nuena, hain zuzen ere.

Baina bilketa lan honek oinarrizko arazo bat zuen, hain zuzen euskal deitura zer den argi zehaztea, Euskal Herrian hiru hizkuntza nagusi (euskara, gaztelania eta gaskoiera) elkartzen baitira, onomastikan nahas-mahas handia sortuz. Beraz, argi utzi behar da ez dela gauza bera euskal deitura, hots, euskaraz sortu izan dena, eta Euskal Herriko deitura. Izan ere, euskal deitura ia guztiak Euskal Herrikoak izan arren Euskal Herriko guztiak ez baitira euskarazko eremuak. Gauzak horrela, *Arguedas*, *Espronceda*, *Salcedo* edo *Llantada* erromantzearen esparruko deiturak, *Gorrotxategi*, *Salaberri* edo *Ariztegi* bezain baskoak dira, nahiz eta euskal deiturak (hots euskarazkoak) ez izan.

Tamalez, begibistakoa den irizpide hau uste baino askoz ere ilunagoa da, zenbait kasutan hizkuntzen arteko harremanengatik maileguak egon direlako (*kamino*, edo *palazio*, jatorragoak diren *bide* eta *jauregi* ondoan), edo eta esa-

nahi desberdina izan arren itxura bera izan dezaketelako deitura bik. Horren adibide *Duarte* abizena dugu, jatorria E.H.an eta Portugalen duena, gure kasuan *Uharte* deitura gehi erromantzezko preposizioa eta Portugalekoan *Eduardo* izenaren aldaketa dena.

Aurreko horrengatik euskal deiturak izan arren nahasgarriak izan daitezkeenak alde batera utzi dira jendea ez nahasteko.

Normalizatze lana burutzeko lehenengo eta behin deituren jatorria finkatu behar zen, geroago bertako ahoskera ezagutu eta proposamena finkatzeko. Itxuraz erraza den lan honek berebiziko oztopoak zituen bereziki gaztelaniaz ez dauden soinuak bereiztean. Ezbairik gabe normalizatzean zailenak *afrikariak* ditugu (*ts* eta *tz*) kasu gehienetan soinu afrikatuarekin bat egin arren (*Eguzqui*za edo *Pikaza*, jatorrizko *Eguzkitza* eta *Pikatza*), batzuetan gaztelaniazko *ch* erabiliz ere ordezkatuak izan zirelako; horren adibide *Muntsaratz* dugu, egun *Muntzaatz*, baina gaztelaniaz *Muncharaz*. Holakoetan egungo testigantza ezinbestekoa izan zaigu.

Baina batzuetan euskararen barneko arauak ere izan daitezke arazo emaleak eta gaztelaniaz itxura bera duen deitura batek euskaraz bi ahoskera izan, eta ondorioz idazkera bi izan dezakeela ikusi genuen, *Arzubiaga/ Artzubiaga* ren kasuan bezala. Holakoetan bi aukerak dira egokiak eta biak proposatu dira, nahiz eta hedatuenari lehentasuna heman.

Tamalez, egungo ahoskera askotan erabat desitxuratuta zegoen edo base-rria galduta eta holakoetan arazo larriak izan ditugu, eta inoiz normalizatze proposamena hurrengo argitalpenerako utzi.

Ezin ditugu banan banan arazo guztiak azaldu, baina bada beste bat, jendearengan duen eraginagatik plazaratu behar dena, gaztelaniazko *j* grafemarena. Idazkeran, eta berez egungo ahoskeran, idatziaren eragina euskal deituren kasuan erabatekoa baita, grafema honek jatorrizko euskal soinu desberdinak islatzen ditugu, batzuetan *x* (*ixa*) eta besteetan *jota*. Gogoratu behar da gaztelaniaz ere bazela *x* soinua eta *j*-ra pasatu zena, horra hor *Quixote*. Kasu horretan *Muxika* deitura dugu eta besteetan *jota*, *Oianguren* edo *Goienola* deituretan bezala. Batzordeak argi ikusi zuen normalitze honetan ez zegoela erromantze hizkuntzek sortutako aldaketak onartzerik eta horrengatik ez zuen erdibideko moldaketa izango zen *Mujika* (*jota* eta *kaz*) onartu. Gogoan izan, bestaldetik, deitura honek iturburu zituen etxe izenetan erabateko adostasuna dagolea *Muxika* ahoskatzean. Antzeko kasua da *Gogenola* deiturarena; berez euskaraz *Goienola* eta ez *Gojenola* dena.

Arreko adibide horiek argi erakusten dute normalizatze prozesu honek dituen arazoak, batetik erromantzeen eragina aztertu, eta bestetik, arazo soziologikoak; zenbait kasutan jendeak gaztelaniarekiko morroitzaz gorde nahi izaten du deiturari euskal itxura emanez, baina azken finean erdaraz utziz. Gorago aipatutako *Mujika* eta *Eguzkiza* deiturak edo *Garzia* lirarteke jarrera horren adi-

bide argiak, baina hizkuntza guztiak duintasuna dute eta ez dago horrelako sai-hesbiderik onartzerik. Bide batez gogoratu behar da *Gartzia* berez euskal deitura dela, Nafarroakoa hain zuzen ere, geroago gaztelaniaz izen eta deitura moduan zabaldu zena.

Normalizazioa ez da norberaren gustura gauzatzen den zerbait, hizkuntza baten sistemaren zati bat baizik, eta aldaketak erabat onargarriak badira ere ezin da eskatzailearen gogara egin. Bestaldetik, gogoratu behar da deiturak ez direla mendeen zehar inolako aldaketarik gabe datozkigun izenak, batik bat idazkerari dagokionez, eta normalizazio prozesu hau gaztelaniak ere egin duela Espainiako erresumako deitura guztiekin, baita kanpotik etorritakoekin ere, gaztelaniaren arauetara makurtuz edo arauak aldatzen zirenean (ç desagertaraztean, esaterako) aldatuz.

Berez egin den lana idatzia bada ere ezin dugu alde batera ahoskera kontua utzi. Euskarak ofizialtasunik ez izateak ahoskatze okerrak sortu zituen, berezirik deitura sorlekutik kanpo joatean, etxea eta deituraren arteko harremana hausten baitzen. Honek lehenago aipatutako erromantzearekiko morroitzua sortu zuen deiturak erdaraz erabiliz, baina argi dago ahoskatze hori ezin dela euskara besterik gabe bihurtu, askoz ere sakonago desitxuratuko bailituzke deiturak, zentzugabeko izenak sortuz.

Hori da labur esanda orain arte egindako lana, baina lan hau ez da oraindik amaitu. Lehen liburu honetan egoitzan izandako eskaeren arabera maiztasun handienekoak sartu dira, eta bide batez saiatu gara beste asko sartzan, nahiz eta askok aldaketarik behar ez, jabeei laguntza ematearren. Hala ere liburu osatua izan arren ez daude euskal deitura guztiak eta hori da Onomastika batzordearen lana osatzea, eta datu falta edo dena delagatik alde batera utzitako guztiak sartzeari, beti ere euskara eta euskal herritarren mesedetan.

Amaitu aurretik eskerrak eman behar dizkiet lankideei, agintariei, bai Eusko Jaurlaritzari eta Madrilgo Justizia Ministerioari eta ezin aipatu gabe utzi Santurtziko Udal Euskaltegia lan honetan aritu ahal izateko emandako erraztasunengatik.

Mikel Gorrotxategi Nieto,  
Onomastika batzorde-idazkaria



## DEITURA IZENDEGIAREN AURKEZTEAN

*Bilbo, 1998-VII-13*

*Henrike Knörr,  
Onomastika batzordeburua*

Sabin Intxaurraga Justizia sailburu jaun txit argia;  
Manuel M.<sup>a</sup> Zorrilla Euskal Herriko Epaitegi Gorenaren presidente jaun txit argia;  
Jaun-andreak, agur.

Biziro pozten nau gaurko aurkezpen honek. Testua gure eskuetatik aspaldixko jalgi ondoren, hemen dugu azkenean liburua, *Euskal deituren izendegia*, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Justitizia Ministerioak argitaratua.

Ez da oraingoa hiritarren eskaria, deiturak paper ofizialetan euskal grafiarekin izateko. Azken urteotan nabarmen-nabarmena izan da eskari eta irriki honen gorakada. Eta ezin gintezkeen mutu egon. Horregatik jo genuen agintarietara, eta bai haiek asmoari begitarte ona egin ere.

Deituren alorra ez da, ez, lur segurua. Aitzitik, irristakorra da, iluna da, maiz zaila da jakiten oina non pausatu. Baina egin beharra zen, herabetu gabe, eta egin dugu.

Langintza honetan luzaro aritu da Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea. Hauxe izan du egiteko nagusia bi urtez. Giza- eta diru-baliabide urriekin, dena esateko, baina gogoz jarduten genuelarik, izen-zerrendak aztertuz eta eztabaidatuz, beti lekukotasunen bila, beren ebakerekin, han eta hemen, eta asmakeria guztietatik ihesi. Asmakeria eta Urkixo aztoratzen zuten *berreraikuntza* guztietatik.

Badateke agian esango duenik iraganaren, bestela esan: tradizioaren aurka ari gara, orrialde hauetan idazkera berriak proposatzen baitira. Halakoek beharko lukete jakin korritzen duten idazkerek ere badutela beren sorrera-data, eta deitura horiek beste soineko bat izan dutela aurreko mendeetan, aldiari aldiko soinekoa.

Gainerakoan, garbi dago ez dela inor ere behartzen bere euskal deitura grafiaz aldatzeko. Norberaren esku dago, norberaren eskubidea denez gero. Ez da ahanzi behar, bestalde, grafia aldatuek grafia aldatugabekoek bezainbeste balio dutela eta izango dutela aurrerantzean epaitegietan eta justiziaren eremuan, oinordeko izateko, demagun.

Jakina, ez da hemen gelditzen gure lana. Liburuan ageri direnak baino anitzez gehiago dira euskal deiturak. Gehiago bildu eta aztertu ditugu dagoeneko, eta ugari dira azterkizun. Bihoa liburu hau aitzindari gisa, Urdazubikoak zioen bezala, nor nola mintzo den abisu eman diezagun.

### En la presentación del *Nomenclátor de apellidos vascos*

No puedo ocultar la alegría con que la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia presenta hoy este *Nomenclátor de Apellidos Vascos*, obra de cuya utilidad nadie dudará.

Hay que temer, desde luego, los dardos que pueden llegar. El escritor catalán Quim Monzó, hablando de este mismo asunto, es decir, de la grafía de los apellidos, mencionaba hace poco lo que con gracia llamaba la —“División Brunete político-massmediática”—, refiriéndose a quienes están dispuestos a cargar contra iniciativas como la presente. Y sin embargo, a pesar de los agoreros y de los inmovilistas, hay que decir bien claro que los apellidos también han estado y están sometidos a los usos (orto)gráficos de las diferentes épocas, por no hablar de los diferentes lugares. Probablemente nos dirán que con esto se rompe España y no sé qué otras cosas. Lo único que hay es el derecho del ciudadano vasco a que su apellido esté en la grafía correspondiente de la lengua.

Aprovechando esta oportunidad, no estará de más volver a indicar que Euskaltzaindia no es una sociedad de genealogía y heráldica. Guardamos, desde luego, la mayor consideración para estas ciencias auxiliares, pero la Academia no puede atender a peticiones de esa índole, para las cuales, dicho sea de paso, en los últimos años parecen haber surgido cantidad de Petrikillos. Y recordaremos también que no es función de Euskaltzaindia traducir apellidos de naturaleza romance (u otra) ni vestir con traje vasco apellidos que no pertenecen a nuestro acervo lingüístico, si bien la frontera no es siempre fácil de fijar. El mismo respeto que solicitamos para nuestros apellidos lo pedimos para los apellidos no vascos, a los cuales debe asignarse su grafía. En este punto nuestro País, abierto como ha estado y está a influjos diferentes, debe mostrar esa misma personalidad diversa, sin ocultarla en modo alguno, pues es parte de su patrimonio.

En este libro no se toca una materia del máximo interés, a saber: la pronunciación de estos apellidos. Un buen amigo, natural de Areatza (Villaro), me suele decir que él no es *Onaindía*, sino *Onáindia*. Y tiene toda la razón. Más crudas son las pronunciaciones del tipo *Hiriguán*, para quien se llama *Hirigoín*.

Terminaré reiterando el agradecimiento de Euskaltzaindia al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y al Ministerio de Justicia. Sin su comprensión y ayuda este libro no se habría publicado.



## **NOMENCLATOR DE APELLIDOS VASCOS EUSKAL DEITUREN IZENDEGIA**

*Bilbo, 1998-07-13*

*Sabin Intxaurreaga,  
Consejero de Justicia, Economía, Trabajo  
y Seguridad Social del Gobierno Vasco/  
Eusko Jaularitzako Justizia,  
Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua*

### **PRESENTACION DEL NOMENCLATOR DE APELLIDOS VASCOS**

Excmas. e Ilmas. autoridades académicas, autoridades de la administración de Justicia y de los organismos relacionados con la misma:

Es un honor para quien les habla que el primer acto en el que participa como Consejero de Justicia, lo sea en esta ilustre casa y en un acto de promoción del euskara en este ámbito.

El derecho de todo ciudadano a poseer un nombre es un derecho personalísimo contemplado por el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos de 19 de diciembre de 1966, y que reconoce la actual Ley de Registro Civil al disponer en su artículo 53 que “las personas son designadas por su nombre y apellidos, paterno y materno, que la Ley ampara frente a todos”.

Según el texto de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se trata de reconocer la lengua propia del pueblo vasco como el signo más visible y objetivo de identidad de la comunidad de Euskal Herria, y un instrumento de integración plena del individuo en ella a través de su conocimiento y uso, siendo obligación de los poderes públicos impulsar y garantizar de forma progresiva el ejercicio de ese derecho, reconocido en el artículo 6.º, y en el artículo 9 para el ámbito de la Administración de Justicia.

Se trata, por tanto, de dar cumplimiento al régimen de cooficialidad lingüística del euskara consagrado en el Estatuto de Autonomía y del derecho de los habitantes del País Vasco a utilizar dicha lengua en sus relaciones con la Administración, arbitrando las medidas y medios necesarios para asegurar dichos derechos lingüísticos.

Ciertamente, si algo contribuye a la normalización del euskara, a su reconocimiento como signo visible de la identidad colectiva e instrumento de

integración del individuo en la comunidad, es el derecho de los ciudadanos vascos a utilizar su lengua propia en la determinación de su nombre y de sus apellidos.

Por lo que atañe directamente a los nombres propios, hay que convenir que la normalización de la lengua vasca es hoy una pacífica realidad entre nosotros. Nada dificulta el que los padres elijan para sus hijos onomásticos consignados en euskara, ni existe traba alguna para que una persona cambie su nombre propio sustituyendo aquél con el que fue inscrito en el Registro Civil por otro vasco.

En lo tocante a los apellidos, la necesaria normalización de euskera pasa por recuperar la correcta grafía de los apellidos de origen euskérico.

Como es fácilmente comprensible, tanto el principio de seguridad jurídica en la imposición y cambio de los apellidos de las personas, como el propio respeto a la lengua vasca, aconsejan que estos expedientes de adaptación gráfica de los apellidos al euskara se resuelvan atendiendo no sólo a la voluntad, que puede ser en ocasiones arbitraria, del solicitante, sino al previo informe favorable de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Hasta el momento presente, cuando un ciudadano pretendía modificar la grafía euskaldun de su apellido, al amparo del artículo 206 del Reglamento de la Ley de Registro Civil, además de iniciar el oportuno expediente en el Registro Civil, había de procurarse el oportuno certificado expedido por Euskaltzaindia que acreditaba la corrección del cambio. A partir de esta publicación, únicamente será preciso que dicho cambio figure amparado por la compilación realizada en este nomenclator.

El precedente que ya abría la puerta a esa posibilidad, que permite un mejor y más ágil servicio a nuestros ciudadanos, parte de una resolución del Director General de los Registros y del Notariado de fecha 23 de abril de 1996, que declaraba con carácter general que en la tramitación de los expedientes de cambio de apellidos vascos, no será necesario aportar el certificado de la Real Academia de Lengua Vasca / Euskaltzaindia, cuando, por estar incluido el apellido en el Nomenclátor elaborado por aquélla, ya queda justificado por este medio la ortografía correcta del apellido solicitado.

Bien es verdad, que por causas absolutamente ajenas a la voluntad del Departamento de Justicia y de Euskaltzaindia, ese proceso de publicación ha sido algo más lento del deseado.

Consecuencia de esa voluntad inequívoca de procurar a los ciudadanos este instrumento, el Ministerio de Justicia y el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco decidieron la publicación de

esta obra a través de la propia imprenta del Boletín Oficial del Estado, al considerar que su difusión y su uso contribuirán a la normalización del euskara.

Nos encontramos, finalmente ante una obra que pretende la normalización de los apellidos, corrigiendo las alteraciones que otros sistemas gráficos introdujeron en ellos al amparo de la no oficialidad del euskera.

La formación de este primer nomenclátor de apellidos vascos supone una obra relevante de la Real Academia de la Lengua Vasca, desarrollada por la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, siendo dicho esfuerzo merecedor de todo nuestro reconocimiento y felicitación por el acierto, en sintonía con una demanda de nuestros ciudadanos.

Su publicación facilitará a todos los ciudadanos vascos deseosos de cambiar los apellidos que resulten tener origen euskérico el adecuarlos a la expresión de su grafía fijada por Euskaltzaindia. Para los jueces miembros de la Carrera Fiscal y funcionarios públicos que hayan de intervenir en los expedientes de cambio de apellidos, el nomenclátor elaborado por la Real Academia de la Lengua Vasca constituirá sin lugar a dudas el referente que permita acompañar la necesidad de seguridad jurídica con el respeto a la lengua vasca. Y ya en los próximos días será remitida a todos los Registros Civiles de la Comunidad Autónoma y a todos los Juzgados de Paz para su utilización.

Aprovecho, al tiempo, esta oportunidad para solicitar la intervención de todos Ustedes, representantes de todos los colectivos en los que este Nomenclátor ha de resultar de interés para nuestros ciudadanos, para que procuren la difusión y el conocimiento del mismo en sus respectivos ámbitos, ya que esa es la verdadera garantía de su efectividad.

Para finalizar, me van a permitir que haga una pequeña referencia a la conveniencia de que se sigan apoyando las iniciativas de varios grupos parlamentarios en el Parlamento Español, para que dentro de un horizonte, espermemos cercano, se modifiquen el artículo 57 de la Ley de Registro Civil y 209 de su Reglamento para que dichos expedientes de cambio de apellido, puedan sustanciarse por completo en los Juzgados de Primera Instancia encargados del Registro Civil correspondientes al domicilio del solicitante, en lugar de precisar su remisión posterior al Ministerio de Justicia, para posibilitar, precisamente, ese mayor acercamiento de la administración de justicia a nuestros ciudadanos y un mejor servicio público.

Muchas gracias, y reitero mi felicitación a Euskaltzaindia por este magnífico trabajo.

\* \* \*

## ***EUSKAL DEITUREN IZENDEGIAREN AURKEZPENA***

Euskaltzain jaun-andere agurgarriok, eta Justizia administrazioko eta erakundeetako agintariok:

Ohorea da niretzat Justizi sailburu gisa egiten dudan lehenengo hitzaldia etxe gailen honetan egitea; are gehiago, euskara Justiziaren arloan sustatzeko ekitaldi batean.

Herritar orok izen bat izateko duen eskubidea oso eskubide pertsonala da, eta horrelaxe dago jasota Eskubide Zibilei eta Politikoei buruzko 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Itunean. Egungo Erregistro Zibilaren Legeak ere eskubide hori aitortzen du, 53. artikuluan honako hau esaten baitu: “Pertsonak beren izenaz eta aita-amen deituz izendatzen dira, eta izen-deitura horiek Legeak babesten ditu denen aurrean”.

Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Onarrizko Legearen testuak dioenez, euskal herriaren ama-hizkuntza Euskal Herriko komunitatearen adierazgarrikeri agerikoena eta objektiboena da, eta, hizkuntza hori ezagutuz eta erabiliz, gizabanakoa komunitatean erabat integratzeko tresna. Beraz, herri-aginteez eskubide hau arian-arian bultzatu eta bermatu behar dute, Legearen 6. artikulua eta 9. artikulua Justizi Administrazioarentzat agintzen duena kontuan izanik.

Kontua, beraz, honako hau dugu: Autonomia Estatutuan euskarari aitortzen zaion ofizialkidetasuna betearazi egin behar da, eta euskal herritarrek Administrazioarekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko daukaten eskubidea bermatu behar da, hizkuntz eskubideak ziurtatzeko beharrezko neurriak eta baliabideak ezarriz.

Euskal herritarrek beren izen-deiturak erabakitzerakoan ama-hizkuntza erabiltzeko daukaten eskubideak laguntzen dio —ezerk laguntzekotan— euskararen normalizazioari, bai eta euskara nortasun kolektiboaren adierazgarri dela eta gizabanakoa komunitatean integratzeko tresna dela aitortzeari ere.

Izen bereziei dagokienez, euskararen normalizazioa errealitate baketsua da gurean. Izan ere, gurasoek ez dute eragozpenik beren seme-alabentzat euskarazko onomastikoa aukeratzeko, eta ez dago inolako trabarik edonork Erregistro Zibilean zeukan izena euskarazko izenaz aldatzeko.

Deiturei dagokienean, ordea, euskal jatorriko deituren grafia zuzena berreskuratu beharra dago, euskararen normalizazioa osoagoa izan dadin.


Erraz adi daitekeenez, pertsonen deiturak euskarazko grafia egokitzeko egiten diren espedienteak erabakitzerakoan, ez da eskatzailearen borondatea kontuan izan behar soilik —borondatea batzuetan arbitrarioa izan baitaiteke—, baizik eta Euskaltzaindiak aurretiaz egindako aldeko txostena ere komeni da, pertsonen deiturak ezartzeko eta aldatzeko segurtasun juridikoaren printzipioa, eta euskarari zor zaion errespetua, aintzat harturik.

Orain arte, herritar batek, Erregistro Zibilaren Legearen Araudiko 206. artikuluan oinarri hartuta, bere deituraren grafia euskalduna aldatu nahi bazuen, Erregistro Zibilean espediente bat hasi beharra zeukan, eta, gainera, Euskaltzaindiak egindako egiaztagiria aurkeztu beharra zeukan, aldaketa zuzena zela erakusteko. Oraingoan, ordea, nahikoa izango da aldaketa hori izendegi honetan bildutako deiturekin bat etortzea.

Erregistroen eta Notariotzaren zuzendari nagusiak 1996ko apirilaren 23an emandako erabaki batek ireki zion atea aukera horri, gure herritarrei zerbitzu hobea eta bizkorragoa eskaintzeko bide ematen baitu. Erabaki hartan, hain zuzen, honako hau esan zen: euskal deiturak aldatzeko espedienteak bideratzerakoan, ez da Euskaltzaindiaren egiaztagiria aurkeztu beharrik izango; izan ere, Euskaltzaindiak prestatutako izendegian jasota egoteak egiaztatzen baitu eskatutako deituraren ortografla zuzena dela.

Egia esan, Justizia Sailak eta Euskaltzaindiak nahi baino motelago burutu da lan hau argitaratzeko prozesua.

Dudarik gabe, herritarrei deiturak taxuz egokitzeko tresna eskaintzea zen gure asmoa. Hori dela-eta, Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Estatuko Aldizkari Ofizialaren inprimategian argitaratzea erabaki zuten, euskara normalizatzekeo tresna ezin-hobea zelakoan.



Azken finean, lan honek deiturak normalizatzea du helburu, eta, horretarako, euskara ofiziala ez zenean grafia-sistema arrotzek gure hizkuntzan eragindako aldaketak zuzendu ditu.

Euskal deituren lehenengo izendegia Euskaltzaindiaren Onomastika bazordeak burututako lan aipagarria dugu, eta, horrenbestez, egindako ahaleginak gure eskerrona merezi du, herritarren eskaerari bete-betean erantzun baitio.

Izan ere, argitalpen honi esker, euskal jatorrizko deiturak Euskaltzaindiak finkatutako grafiara egokitzeko irrikitan dauden euskal herritar guztiek aukera izango dute nahi hori asebetetzeko. Bestetik, deiturak aldatzeko espedienteetan esku hartu behar duten epaile, fiskal eta funtzionario publikoek, berriz, segurtasun juridikoa eta euskara uztartzeko erreferente izango dute Euskaltzaindiaren izendegia. Horregatik, datozen egunotan Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro zibil eta bake-epaitegi guztietara bidaliko da, erabil dezaten.

Era berean, aukera aprobetxatu nahi dut zuek guztiek ere (gure herritarren taldeen ordezkariak zaretenez) parte har dezazuen eskatzeko. Hortaz, saia zaitzte zuen arloetan izendegia hedatzen eta ezagutarazten, horixe izango baita bere eraginkortasuna bermatzeko bide bakarra.

Amaitzeko, beste aipamen bat egin nahi nuke. Komenigarria dirudit Espainako Parlamentuko hainbat taldek, epe jakin baten barruan (luzea ez izatea espero dut), Erregistro Zibileko Legearen 57. artikulua eta haren Araudiaren 209.a aldatzeko izandako ekimenak bultzatzen jarraitzea, deiturak aldatzeko espedienteak eskatzailearen bizilekuari dagokion Lehen Auzialdiko Epaitegietan erabat gauzatu ahal izateko. Hori guztia, jakina, justizia-administrazioa gure herritarrengana gerturatzeko eta, era berean, zerbitzu publiko hobea eskaintzeko asmoz.

Eskerrik asko, eta berriro ere nire eskerrona Euskaltzaindiari, egin duen lan bikainagatik.